

Parodia

Batzuetan, irudi absurdo bat argudio zorrotza baino argigarriago eta sinesgarriagoa izaten da. Orain egun batzuk exekutatu dute Kalifornian preso zahar, diabetiko, itsu, gor eta elbarri bat. Hori baino lehentxeago, Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak ezezkoa eman zion erruki- edo barkamen-eskari bati, eskarian, besteak beste, zigortuaren adina eta egoera fisiko kaskarra argudiatu bazuten ere. Ez da askorik hausnartu behar alegatu edo arrazoibide horren kongruentziarik ezaz jabetzeko; izan ere, badirudi heriotza-zigorra ondo egongo litzatekeela gazte osasuntsu bati ezarritz gero.

Gizaki baten erregelamenduzko heriotza inpersonal eta programatuak badu halako krudelkeria bat, biktimaren ahuleziak eta babesik ezak bereziki azpimarratzen dutena. Epaiak oinarritzat hartu dituen delituak edozein direla ere, elbarri bat hiltzea ez da, inondik ere, ez eredu, ez zigor, ez mendeku, eta Talioaren legearen defendatzailek amorratuenak ere onartu behar du zerbaitek huts egiten duela. Beste planetako bidaiari bati, indiarrez mozorrotutako agure hondatu bat urkamendira eramaten dutela ikusiz gero, bitxi edo harrigarri irudituko litzaioke, eta, estralurtarra gizaki ez denez gero, baita barregarri samar ere.

Arnold Schwarzenegger-en esku-hartzeak —osagarria baina, era berean, erabakigarria— ez ditu gauzak hobetu. Izan ere, baliabide artistiko urriko aktorea da, baina, aldi berean, sinesgarria, ikusgarritasuna eta bere buruaren parodia oinarri dituen fikziozko unibertsoan. Atletiko eta gihartsu, itxura basati eta dibertigarriarekin, Schwarzenegger-ek aurreikuspen ororen kontra lortu du ondo baino hobeto txertatzea efektu berezien imajineria ganoragabea, bere burua efektu berezi bihurtuz. Bere interpretaziorik onena, jakina, robot gizatartuarena egin zueneko: sentimentalismoz eta txatarrak egin, Douglas Fairbanksen eta kamioi baten hibrido. Orain, bere lanbide berrian, behekoz gora jarri nahi izan du eskema: sinesgaitz teknologikoa sinesgarri bihurtu ordez, errealitatek gordin eta gogorrena sinesgaitz bihurtu. Baina bere panorama intelektuala osatzen duen bideo-jokoa errealitateira eramanez, *sketch* bat atera zaio, aldi berean txantxa eta hilketa hartzen dituen.

EDUARDO MENDOZA (Euskaratua)

GALDERAK

A AUKERA

1. Testuaren edukia laburtu eta gaia zehaztu. (2 p.).
2. Funtsezko ideiak adierazi, eskema batean hierarkizatuz (1 p.).
3. Adierazi zer motatako testua den, honako hauek kontuan hartuta: diskurtso-modalitate nagusia, erabilera eremua eta hizkuntza-erregistroa. Adierazi ezaugarri morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta estilistiko nagusiak (3 p.).
4. Justifikatu testuan nagusi den/diren hizkuntza-funtzioa/k (1 p.).
5. Iruzkin kritikoa. Gaiari buruzko iritzi pertsonala adierazi, testuinguru baten barruan jarritz eta alde edo kontra agertuz. Era berean, hizkuntza-adierazpen egokia erabili, honako prozedura hauek kontuan hartuta: kohesioa, eraikuntza sintaktikoa, lexikoa eta zuzentasun ortografikoa, (3 p.).

B AUKERA:

Testuaren iruzkin librea.

ARIKETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorrak

Honako gaitasun hauek baloratu nahi dira ariketa honekin:

- Proposatu den testua ulertu, analizatu eta interpretatzeko gaitasuna.
- Adierazpen idatzi egoki, egituratu, koherente eta kohesionatua, ortografia-eta aurkezpen-arauak errespetatzen dituen.
- Testuinguruan jartzeko eta sintesia egiteko gaitasuna.
- Proposatu den testuarekin zerikusia duten kontzeptuak ulertzeko gaitasuna.

Berariazko irizpideak

1. galdera

- Laburpenean testuaren ideia nagusiak argi eta laburbilduta agertzen ote dituen, gehienez ere 8 lerrotan..... (1 p.).
- Testuaren gaia bereganatu eta gehienez ere lerro batean ematen duen. (1 p.).

2. galdera

- Funtsezko ideiak ematen ote dituen, hierarkizatuta eta eskema batean laburbilduta (1 p.).

3. galdera

- Testu-mota identifikatu ote duen, justifikazio eta guzti (1 p.).
- Ezaugarri morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta estilistiko nagusiak ezagutzen ote dituen..... (2 p.).

4. galdera

- Hizkuntzaren funtzioak ezagutu eta bere erantzuna arrazoitzen ote duen (1 p.).

5. galdera

- Egilearen iritziaren aldeko edo kontrako arrazoi egokiak ematen ote dituen bere testuinguruan (1 p.).
- Bere iritzia arrazoiz eta era koherentean azaltzen ote duen (1 p.).
- Hizkuntzaren aldetik egoki eta ortografiarenetik zuzen jarduten ote duen (Gutxienezko luzera, 25 lerro) (1 p.).